



Neurrien neurria

Lehenengo neurria: iluna, arriskutsua eta oso kutsakorra da gaueko bizitza. Bigarren neurria: gazteak arduragabe hutsak dira. Hirugarren neurria: tabernetako sozializazioak du kutsatzeen errua. Lauugarren neurria: lantokietan ez da kutsatzerik gertatzen. Bosgarren neurria: Gabonak oso garrantzitsuak dira eta denak alaiki kontsumitzera. Seigarren neurria: norbanakoak oso gaizki egiten ari zarete eta horregatik gaude horren gaizki.

Euskal Herria estatu izango balitz, Europa mailan podiumean egongo ginateke milioi biztanleko hildako kopuruan. Ez da epidemiologoa izan behar COVID-19ari aurre egiteko neurriak behar-beharrezkoak direla ebazteko. Alta, botere publikoetatik hartutako erabakien bulkadak eta horiek komunikatzeko erak badute ageriko dimentsio sozial eta politikoa.

Eremu, jarduera eta kolektibo batzuk seinatu eta kriminalizatzea ez da bizidena. Are gutxiago inongo ebidentziantan oinarrituta ez dagoenean. Zenbait gaztek portaera arduragabeak izan dituztela. Noski. Zenbait helduk bezalaxe. Tabernetan kutsatze batzuk gertatuko zirela. Noski. Beste lantokietan bezainbeste.

Lanean kutsatzerik ez dela gertatzen eman nahi zaigu aditzera. Horrela ekonomia babesten daudela pentsatuko

Ez dago kontraesanik neurri are zorrotzagoak behar direla defendatzearen eta neurri horien nolakotasun eta bulkada epaitzea ezinbestekoa dela sinestearen artean

dute. Birus honen kutsatzeari buruz dakigunetik, ordea, argi dago hori ezinezkoa dela. Eusko Jaurlaritzak positiboen %95 jatorri ezezagunekotzat du. Lanetik kanpoko bizitza soziala erabat mugatuta dugun honetan, Sherlock Holmesi deitu beharko diogu auzia argitzeko.

Norbanakook arduratsu jokatu behar dugu. Ados. Musukoa, eskuak garbitzea, distantzia soziala eta aireztatzea. Zer egin behar dugun badakigu, eta gure kulpa asumitzeko prest gaude: arduratsu jokatzeko ez da beti erreza eta zeinek gehiago zeinek gutxiago, guztiok dauzkagu erlaxatze edo hanka sartze uneak. Baina horren gainera badago kudeaketa publikoaren itzala. Lehendik zetozen osasun sistemaren egiturazko arazoak, pertsonal eta baliabide falta, behin-behinekotasuna, lehen arretra-



ESTITXU GARAI ARTETXE
EHU-KO IRAKASLEA

ren gabezia eta pribatizazioak, besteak beste. Pribatizazioari buruz ari garela, zahar-etxeen kasua paradigmaticoa da, gordin ikusi dugu negozioari ongizatearen gainera bide emateak zer dakarren. Osasun krisiaren kudeaketan ere, kalte-tuenak izango diren sektoreei erreparatuta, behin eta berriro izan dugu sentipena patronalaren interesak osasun irizpideen gainera jarri direla.

Oinarritzko eskubideen murrizketa gogorrek jasaten ari gara. Kontzientzia lasaitzeko, ezinbestekoa litzateke sinestea guztion hobe beharrez ari garela. Horretarako, ez legoke gaizki ezarritako mugak zein irizpideren arabera hartu diren eta non eragin nahi den edo zer ekidin nahi den ñabardura guztiakin azalduko baligute.

Izan ere, ez dago kontraesanik neurri are zorrotzagoak behar direla defendatzearen eta neurri horien nolakotasun eta bulkada epaitzea ezinbestekoa dela sinestearen artean. Guztion osasuna jokoan dagoenean eta shock egoeran gaudenean zaila baita kritikotasunari eustea.

Irizpide kritikoari euste horretan, es-timatzeak da euskarazko hedabideek orain eta beti egiten duten lana. Bolada batez ARGIAko txoko honetatik agur esaten dizuet. Eskerrik asko urte hauetan eskainitako leihorengatik. Gaizki esanak aintzat hartu eta ondo esanak pairatu. Hurrengo olatura arte. ●